

Hondakinak: ez genituzke ikusi nahi, baina hemen daude



~Doako jarduera irekia
~18:00etan
~Donostiako Miramar Jauregian edo online

Hizlaria: Iñaki Susaeta, Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko ingurumen-teknikaria.

"Hondakinetatik eratorritako bigarren mailako materialetarako merkatu egonkor eta segurua sortzeko premia larria".

Mar. 12 2026

Kod. W04-26

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Mar. 12 2026

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Hondakinek protagonismo handia hartu dute ekonomia modernoaren garapenean. Hondakinen kudeaketa egokiak, ingurumenaren jasangarritasunean laguntzeaz gain, aukera ekonomiko esanguratsuak ere sor ditzake. Paradigma-aldaketa horren arrazoia da ahotan dugun ekonomia zirkularrari buruzko kontzientzia gero eta handiagoa dagoela, hondakinak baliabide bihurtzeko helburuarekin. Baina... noraino iristen da ekonomia zirkularra?

Hori da, ziur aski, eztabaida gehien sortu duen puntua. Horregatik egin dute hainbat egilek ekonomia zirkularraren nolabaiteko kritika; ezinezkoa dela diote, esaten dutenez termodinamikaren legeen aurka doalako (Martínez-Alier, 2016; Mayumi eta Giampietro, 2020).

Baina galderari ematen diogun erantzuna gorabehera, badirudi egia dela, hondakinetatik eratorritako kalitatezko materialen merkatu egonkor eta eraginkorra eraikitzeko gai ez bagara, ezingo dugula ekonomia zirkularraz hitz egin.

Zer behar dugu bigarren mailako materialen merkatu hori errazteko? Nire ustez, oinarritzko lau ekintza unibertsalek eraman behar gaituzte bigarren mailako lehengaien merkatu eraginkor eta ireki horretara: hondakinak jatorrian modu masiboan bereiztea, teknologia berritzaileak txertatzea hondakinen behar bezalako prozesatzean, sortutako bigarren mailako materialen kalitatea zorrotz kontrolatzea eta material horien lehentasunezko erabilera sustatzea.

Gaur egungo egoera hobetzeko aukera dugu. Baina ez gaitezen teknologiaz bakarrik fidatu, kateko agente bakoitzaren konpromisoa baita gure aktiborik onena.

Hondakinetatik eratorritako material asko (plastikoak, metalak, papera eta abar) ekoizpen-prozesuetan sar daitezke berriz. Horrek baliabide naturalekiko mendekotasuna murrizten du, erauzketa-kostuak txikiagotzen ditu eta ingurumena babesten laguntzen du.

Ekonomia zirkularra deitzen diogun horretara igarotzea funtsezkoa da etorkizunean garapen jasangarria eta lehiakorra bermatzeko.

Programa

2026-03-12

18:00 - 19:15

“Residuos: No quisiéramos verlos, pero están aquí”

Idioma: Español

Iñaki Susaeta Elorriaga | Ihobe - Técnico Ambiental de la Sociedad Pública de Gestión Ambiental

Eva Caballero kazetariak hizlariarekin elkarrizketa izango du hitzaldia amaitutakoan / La periodista Eva Caballero mantendrá un diálogo con el ponente una vez finalizada la conferencia

Irakasleak



Iñaki Susaeta Elorriaga

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko ingurumen-teknikaria

Eusko Jaurlaritzako Ihobe- Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko teknikaria da. 38 urtetik gorako esperientzia du administrazio publikoan, ikerketa- eta hezkuntza-erakundeetan eta sektore pribatuan. Zientzietan lizentziaduna da Nafarroako Unibertsitatean, eta Ingurugiro Ingeniaritzako Ikasketa Aurreratuen Gradua du Euskal Herriko Unibertsitatean. Horrez gain, bioteknologiako ikerketa-egonaldia egin zuen Wageningen-eko Nekazaritza Unibertsitatean (Holanda), eta ikertzaile gonbidatua izan zen Stevens Institute of Technology-n (AEB). 2006tik 2021era, Euskal Herriko Unibertsitateko Ingurugiroaren Agrobiologia Masterreko irakaslea izan zen, eta esperientzia handia du I+G+Bko nazioarteko proiektuen koordinazioan. Halaber, Zientzia eta Teknologia Ministerioko adituen batzordeko kide izan da, baita ingurumen-arloetako laguntza-eskaerak ebaluatu eta hautatzeko Europako Batzordekoa ere. 2019ko uztailetik 2021eko uztaileira, Regions4 Sustainable Development sareko idazkari nagusia izan zen. Idazkaritzako lana gidatzeko ardura izan zuen, biodibertsitateari, klima-aldaketari eta garapen jasangarriari buruzko nazioarteko agenda nagusiei dagokienez, eskualdeetako gobernuen ordezkartzaren eta eraginaren arloan.

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - AURREZ AURRE

2026-03-12 ARTE

Orokorra

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa